

Laudioko Udala

Laudioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29 egunean hartutako erabakiaren laburpena. Zeinaren bidez onetsi zen Genero-indarkeriaren Biktima izan diren Emakumeei Laguntzeko 2019ko Programaren deialdia.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>

Lehenengoa. Onuradunak.

Genero-indarkeriaren biktima izatearen egiaztagiria izan gabe ere eta erasotzailea salatu ez arren, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Bigarrena. Xedea.

Laguntza ematea genero-indarkeriaren biktima izan diren, kalteberatasun-egoeran dauden eta diru-sarrerak bermatzeko errenta edota etxebizitzarako prestazio osagarria jaso ezin duten emakumeei.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

Laudio Udalaren 515 zenbakia duen Dekretu bidez onetsi ziren 2018ko martxoaren 16an eta ALHAOn argitaratu ziren 2018ko martxoaren 28an.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Ezingo du gainditu indarrean dagoen aurrekontuan jasotako zenbatekoa, zehazki, Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloko aurrekontuaren barruko 0800-2317-480.09 aurrekontu partidan, Genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdiko laguntzak izenekoan 2019. urterako kontsignatutakoa, alegia, 31.667,76 euro.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.

2019ko ekitaldi ekonomiko osoan.

Laudio, 2019ko martxoak 29.

Alkate udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.